



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO OTSAILAREN 8AN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- 2016KO OTSAILAREN 1EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek, 2016ko otsailaren 1eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAK MUNALURRA KALEA 10 ETXEAN EZARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0286

MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20309761) ordezkartzan diharduen Carlos Milla Azcona jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dugu. Bertan, Munalurra kalea 10 etxean ezarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko otsailaren 11n eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20309761) ordezkartzan diharduen Carlos Milla Azcona jaunari, Munalurra kalea 10 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearen batera igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu dute.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko urtarrilaren 25ean, Aldeko txostena (EE2016\_04\_02) eman du *Eusko Jaurlaritzako industria Sailak igogailua funtzionamenduan jartzeko baimen ziurtagiria* aurkeztuko baldintzarekin.

Interesatuak 2016ko urtarrilaren 28an aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Leihakortasun Sailaren igogailua abiarazteko jakinarazpena.



Usurbilgo Udala



Gauzak horrela, eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAK (IFK: H-20309761) Munalurra kalea 10 etxean ezarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

### **3.- URDAIAGAN BIRGAITUTAKO URDAIAGA BASERRIARI ETA BERTAN MOLDATUTAKO BI ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2012-0140

NEREA ERAUNZETAMURGIL MANTEROLA, ESTEBAN ROTETA BALERDI eta MAITE ROTETA LIZASOK, Urdaiagan birgaitutako Urdaiaga baserriaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

#### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko urriaren 8an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: NEREA ERAUNZETAMURGIL MANTEROLA, ESTEBAN ROTETA BALERDI eta MAITE ROTETA LIZASORI, Urdaiaga baserria birgaitzeko eta bertan bi etxebizitza egokitzeko udal baimena ematea.

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera birgaitutako baserriaren lehen erabilera baimena eskatu da.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko urtarrilaren 25ean, Aldeko txostena eman du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondare zerbitzuak ere ALDEKO txostena eman du 2016eko otsailaren 2an. Hitzez hitz honela dio:

(...)

#### ANALISIA

Aurkezturiko dokumentazioa eta eraikineraren egindako bisiatan ikusi ahal izan dugunez, egindako lanak egokiak dira eta eraikineraren ondarezko balioak era egokian mantendu eta balioan jarri dira.

#### ONDORIOAK



Usurbilgo Udala



Aurkezturiko obra amaierako dokumentazioaren aldeko iritzia azaltzen dugu.

(...)

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko otsailaren 3an emandako txostenean honela dio hitzez:

(...)

#### ANALISIA

Eskatutakoak bete direla promotoreak adierazi ondoren, bertaratu gara eta ikusi da Urdaiaga sakabatuak 19ko Urdaiaga baserriko herriko zerbitzuen lotuneei buruzko betebeharrekoak bete direla.

(...)

Bestalde, udal aparejadoreak 2016ko otsailaren 3an altura zuinketa burutu du eta baimendutako altuera betetzen dela baieztatu du.

Azkenik, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko otsailaren 4an Aldeko txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

(...)

Eskatutakoak bete direla promotoreak adierazi ondoren, bertaratu gara eta ikusi da Urdaiaga sakabatuak 19ko Urdaiaga baserriko herriko zerbitzuen lotuneei buruzko betebeharrekoak bete direla.

Ikusirik, baserriaren inguruan dauden 2 txabolek badutela aldeko txostena, eta bestetik baserrian bertan eginda zegoen eranskina eraitsi egin dela, baimenean eskatutako eranskinen inguruko baldintzak (legeztatu edo eraitsi) bete direla ziurtatzen dut, eta beraz ALDEKO txostena igortzen dut.

(...)

Guzti hau kontutan izanik Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** NEREA ERAUNZETAMURGIL MANTEROLA, ESTEBAN ROTETA BALERDI eta MAITE ROTETA LIZASOK eskatu bezala, Urdaiagan birgaitutako Urdaiaga baserriari (*Urdaiaga 16*) eta bertan moldatutako bi etxebizitzetzi (*Urdaiaga 16, A* eta *Urdaiaga 16, B*) lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-eroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.



Usurbilgo Udala



#### 4.- MARI JOSE ALTUNA ARTOLA ANDREARI KALE NAGUSIA 10 BEHEAN KOKATUA DAGOEN OKINDEGIA BERRITU ETA HANDITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ,05/2015-0474

MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak, Kale Nagusia, 10 behean kokatua dagoen okindegia berritu eta haunditzeko udal baimena eskatu du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

UA2016\_05\_01

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**OBRA TXIKIAK**  
**OPIL GOXO S.L. OKINDEGIAREN JARDUERA HANDITZEKO**  
**PROIEKTUARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Kale Nagusia, 10. Usurbil  
ESKAERA DATA: 2015eko uztailaren 22a  
ESKATZAILEA: Mari Jose Altuna Artola  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.05/2015-0474  
OBRA PROIEKTUAREN PEM: 56.460,98 €

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.331,26 euro  
**Fidantza (%120): 1.597,5 euro**

---

#### 1.- AURREKARIAK

- 2015eko uztailaren 22an Mari Jose Altuna Artolak Opil Goxo Okindegia handitu eta berritzeko Jarduera eta Obra Proiektua aurkeztu du.

##### Erlazionatuak:

- 1984ko Jarduera espedienteetako 141 zenbakia (artxiboko 151-3 espedienteak)
- 1997ko 341 zenbakia duen espedienteak (Sig. 0200-06)
- **HZ.07/2015-364 : OPIL GOXO S.L. OKINDEGIAREN JARDUERA HANDITZEA.**
  - 2015eko uztailaren 22an Mari Jose Altuna Artolak Opil Goxo Okindegia handitu eta berritzeko Jarduera eta Obra Proiektua aurkeztu du.
  - 2015eko urriaren 6an udal arkitektoaren hirigintza txostena.

#### 2.- TXOSTENA

Mari Jose Altunak Opil Goxo Okindegiaren jarduera berritu eta handitzeko proiektua aurkeztu du. Eskaera orriarekin batera aurkeztu



Usurbilgo Udala



duen Jarduera eta Obra proiektuak honakoak barneratzen ditu: memoria, planoak, aurrekontua, baldintza plegua, segurtasun eta osasun azterlana, kalitate kontrol plana, hondakinen kudeaketarako azterlana eta ziurtagiri eta eranskinak. Guztia arkitektoak izenpetuta eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe dago. Teknikari gaituaren erantzukizun aitortpena ere aurkeztu da.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- OBRA TXIKIAK: Aurkeztu den Jarduera eta Obra Proiektuak gaur egungo okindegi jardueraren handitzea eta berritzea proposatzen du. Horretarako obrari dagokionean barneratzen diren eskuhartzeak tabikeen eraisketa eta banaketa berriak, instalazio berriak eta lokalaren handitzea dira. Esan daiteke, **obra txikien eremuan barneratu daitezkeela eta ondorioz onargarria da proiektua Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe egotea.**
- ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK ETA JARDUERA SAILKATUA; HZ.07/2015-364 espedientean txostenetan jaso den moduan, proposatzen den erabilera onargarria da hirigintza ikuspegitik eta Jarduera Sailkatua izanik, dagokion baimena jaso beharko da; **obrak Jarduera Baimenak ezarritako neurri zuzentzaileetara egokitu beharko dutelarik.**
- SOINU ARAUDIA BETETZEKO OBRA EGOITZAPENAK: **Jarduera dela-eta indarrean dagoen Soinuaren Legea eta gaiaren inguruko aplikaziozko araudia betetzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko dira obran, baldin-eta bertan finkatutako soinu dB-ak betetzeko hala beharko balitz (isolamendua, ... e.a.).**
- ARAU SUBSIDIARIOEN BETETZEA: Indarrean diren Arau Subsidiarioek 37. artikuluan behe solairuetako lokaletarako ezartzen dituzten baldintzak bete dira. **Orohar, bete beharko dira AASS-etako Testu Bateginaren aplikaziozkoak diren irizpideak.**
- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA(68/2000 Dekretua eta EKT-DB-SUA): **Komun irisgarriak 1,5 m-ko diametrodun zirkulu librean barneratu beharko du eta dagozkion ezaugarriak izan beharko ditu (euste barrak, inodoroaren neurriak, ... e.a.) EKT-DB.-SUaren *servicios higiénicos accesibles* terminologian definitzen den moduan eta baita Irisgarritasun 68/2000 Dekretuak II. Eranskinaren 3.12. artikuluan finkatutakoari jarraituz. Arrapalaren luzera 3 metro baino gutxiagokoa izanik, %10 gehienezko malda bete beharko du.**
- EKT-BETETZEA ETA GAINONTZEKO ARAUDI APLIKAGARRIA: **Orohar aplikagarriak direnak bete beharko dira.**



Usurbilgo Udala



- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.331,26 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, **aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.597,51€)**. Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBRA BAIMENA ETA OBRA BAIMENAREN EPEAK: Edonola, eraikina **egokitzeko obrak egiteko dagokion baimena jaso aurretik jarduera baimena eduki beharko da**. Baimenaren epeak izango dira:
  - o **Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete**
  - o **Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.**
  - o **Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.**

### 3.- ONDORIOA

**Opil Goxo Okindegiaren handitze obrei ALDEKO txostena idazten zaie, beti ere, aipatutako baldintzen pean.**

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2015ko urtarrilaren 27an

UDAL ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA  
SAILEKO BURUA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereari Kale Nagusia, 10 behean kokatua dagoen okindegia berri eta haunditzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- MoMarkitektura Diseinua Teknika S.L.P. taldeko Leire Fuente eta Oihana Beltran arkitektoek 2015eko uztailean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.



Usurbilgo Udala



- Ezinbestean jarduera baimena lortu beharko da bertan okindegi jarduera ezartzeko. Obrak Jarduera Baimenak ezarritako neurri zuzentzaileetaa egokitu beharko du.
- Jarduera dela-eta indarrean dagoen Soinuaren Legea eta gaiaren inguruko aplikaziozko araudia betetzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko dira obran, baldin-eta bertan finkatutako soinu dB-ak betetzeko hala beharko balitz (isolamendua, ... e.a.).
- Orohar, bete beharko dira AASS-etako Testu Bateginaren aplikaziozkoak diren irizpideak.
- Komun irisgarriak 1,5 m-ko diametrodun zirkulu librea barneratu beharko du eta dagozkion ezaugarriak izan beharko ditu (euste barrak, inodoroaren neurriak, ... e.a.) EKT-DB.-SUAREN *servicios higiénicos accesibles* terminologian definitzen den moduan eta baita Irisgarritasun 68/2000 Dekretuak II. Eranskinaren 3.12. artikuluan finkatutakoari jarraituz. Arrapalaren luzera 3 metro baino gutxiagokoa izanik, %10 gehienezko malda bete beharko du.
- Ezinbestean bete beharko dira bai eraikinean eta baita obren egikaritzan ere EKT-k ezarritako neurriak eta suteen babeserako araudia. Orohar aplikagarriak direnak bete beharko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  1. Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
  2. Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren



Usurbilgo Udala



arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigitaturik eta Kolegioan bisaturik.

3. Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

4. Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.

5. Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

6. Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiraren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.331,26 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.597,50 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.





Usurbilgo Udala



1.597,50 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.05/2015-0474" jarriaz kontzeptuan.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**5.- MARI JOSE ALTUNA ARTOLA ANDREARI KALE NAGUSIA 10 BEHEAN KOKATUA DAGOEN OKINDEGI JARDUERA BERRITU ETA HAUNDITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.07/2015-0364

MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Kale Nagusia, 10 behean kokatua dagoen okindegi jarduera berritu eta haunditzeko udal baimena eskatu du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2015-0364  
ESKATZAILEA: MARI JOSE ALTUNA ARTOLA  
JARDUERA MOTA: Okindegia - haunditzea  
NON KOKATUA: Kale Nagusia 10 behea / Usurbil

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 203. zenbakia, 2015eko urriak 23). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2015eko azaroaren 9an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 3364 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2015eko azaroaren 30ean aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri ditu.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**

**LEHENEA:** MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereari, Kale Nagusia, 10 behean kokatua dagoen okindegi jarduera berritu eta haunditzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen Akta lortu arte, inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak alde aurretik Udalarari eskatu beharko dio Egiaztapen hori burutzea. Eskaerarekin batera aurkeztuko da, Obra eta



Usurbilgo Udala



-instalazioetako Zuzendari Teknikoak egindako Ziurtapena, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean industria sailak luzatutako baimena aurkeztuko da. Baita jarduera proiektuaren beste ale bat ere.

- Baldin eta aipatu egiaztapenerako eskaera aurkeztu baino lehen, makina edo instalakuntzen funtzionamendua egiaztatzeko frogaren batzuk egin behar balira, titularrak bost egun aurretik Alkateari adierazi beharko dio, froga horren iraupena zehaztatuz eta ingurua, pertsonak eta ondasunak arriskuan ez direla jarriko garantizatuz; froga horiek egiterakoan Udaletxeko Teknikoek bertaratzerik izango dute.

**BIGARRENA:** Aurkeztutako Proiektuari egokiturik egingo dira obra eta instalazioak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

**HIRUGARRENA:** Neurri Zuzentzaileak. Jarduerak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak ezarritako ondoko neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

- Lokalaren aireztapena era eraginkor batean egingo da, beti ere inguruko bizilagunei zarata, dardara edo usainik sortu gabe.
- Obradore eremuaren aireztapena eta ke eta gasen hustuketa xede horretarako bakarrik izango den kebidetik egingo da. Kea eta gasak hiltzeko eta kanpora botatzeko sistema egokiak jarriko dira eta, kebidetik, etxeke eta aldameneko etxeetako teilatu-hegala baino 2 metro gorago erarnango dira, auzokoei usainik, zaratarik eta dardarik helarazi gabe.
- Mota guztietako makinaren finaketa dardararen kontrako elementuez egin behar da, eraikinaren egiturara, gertuko lokal eta etxebizitzetara ez dadin dardararik helarazi.
- Azterketa akustiko bat aurkeztuko da non zehaztuko diren funtzionamendu ordutegia, jarduera abian dagoenean aurreikusten den gehieneko soinu mana eta Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoa betetzeko hartutako konponbidea.
- Bereziki zainduko da hozkailu multzo trinkoen isolamendua, hotz ganbaren unitate kondensatzaile eta lurruntzaileena eta hozkailu-eroapenena. Horiez gain, ondo isolatu beharko dira lan mahaiak, atakak eta abar ere.

Organismo tekniko eskudunek orokorrean aplikatzeko ernandako arau espezifikoak bete babar ditu; bereziki honako hauek: Udal ordenantzak, hirigintza arauak, eta ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, etxebizitzetarako iur eremu hiritarrean jartzen diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuetarako arau tekniko orokorrak onartzen dituenak, ezartzen dituen



Usurbilgo Udala



baldintzak eta 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

Halaber, suteen kontra babesteko baldintzak organo eskudunak ezarritakora egokituko dira.

Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentaileak nahitaez bete behar dira, goain aipatutako jarraibideekin bat ez datozenan izan ezik.

**LAUGARRENA:** Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da:

- Obra eta Instalazioen zerga
- Argitalpenak
- Fotokopiak

**BOSGARRENA:** Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

**SEIGARRENA:** Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**ZAZPIGARRENA:** Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

**ZORTZIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

## **6.- 2015EAN KIROL ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitun laneguneko epea emanez. Epe horretan, guztira 12 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren.



Usurbilgo Udala



Ondoren, 2015ko apirilaren 21eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Apirilaren 27n egindako Kirol Batzordean, 2014ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Aurreneko zatia eskatu zuten 12 kirol elkarteei %50a eman zitzaien; elkarte guztiek 2016ko urtarrilaren 15 arteko epea zuten zuriaketak egiteko.

Eskatutako modu egokian aurkeztutako gastu-zuritutakoaren arabera,

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2015ean Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntzaren oinarrien arabera, diru kopuru hauek onartzea:

Tximeleta	276,10 ez du dena ondo zuritu
Andatza	1.575,00 ez du dena ondo zuritu
Baxurde Txiki	405,76 ez du dena ondo zuritu
Buruntzazpi	-239,87 ez du dena ondo zuritu
Beteri Sub	94,17 ez du dena ondo zuritu
Usurbil FT	1.885,85 ez du dena ondo zuritu
Usurbil JC	2.518,85 ez du dena ondo zuritu
Makax	251,56 ez du dena ondo zuritu
Pagazpe	45,44 ez du dena ondo zuritu
Usurbil KE	8.138,22
Zubieta Lantz	314,32 ez du dena ondo zuritu
Zubieta PT	464,73 ez du dena ondo zuritu
	<hr/>
	<b>15.730,14</b>

**Bigarrena:** Zerrendan azaltzen diren kirol elkarteei proposatutako ordainketak egitea.

**Hirugarrena:** Itzulketa egin behar dutenei, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko dute itzulketa, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

Kutxabank: 2095 5069 07 1060024832

Euskadiko Kutxa: 3035 0140 30 1400900017



Usurbilgo Udala



**Laugarrena:** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:

1 4300 481 341 00 01 2015 (A 943 / 2015)

**Bostgarrena:** Interesatuei akordioaren berri ematea.

**Seigarrena** Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

## 7.- 2015EAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA ONARTZEA.

Esp.zk.: GZ.42/2014-0004

### 1.- Espedienteei buruzko datuak

#### Espedienteak:

<b>ACABE</b>	(GZ.29/2015-0036)		<b>ATZEGI</b>	(GZ.29/2015-0138)
<b>ADEMG</b>	(GZ.29/2015-0042)		<b>BEGISARE</b>	(GZ.29/2015-0041)
<b>AECC</b>	(GZ.29/2015-0031)		<b>BIKARTE</b>	(GZ.29/2015-0034)
<b>AGIFES</b>	(GZ.29/2015-0027)		<b>GIP. ITXAROPEN TELEFONOA</b>	(GZ.29/2015-0039)
<b>AGIPASE</b>	(GZ.29/2015-0035)		<b>IZAN FUNDAZIOA</b>	(GZ.29/2015-0028)
<b>ALCER</b>	(GZ.29/2015-0029)		<b>ORTZADAR</b>	(GZ.29/2015-0030)
<b>ATECE</b>	(GZ.29/2015-0033)		<b>PAUSOKA ELKARTEA</b>	(GZ.29/2015-0032)

### 2.- Ikusirik

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea emanez, hau 2015eko otsailaren 26an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 15 diru-laguntza eskaera jaso ziren.

Hori horrela, 2015eko apirilaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzorde informatiboan, 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2015eko apirilaren 21eko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorra, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizkien alegazioak aurkezteko.



Usurbilgo Udala



Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzak onartu eta diru-laguntzaren lehen ordainketa (diru-laguntzaren erdia) egitea eta gainerako % 50a, emandako diru-laguntza justifikatu ondoren ordaintzea onartu zuen.

Laburtuz,

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50	BIDERATU BEHARREKOA	OHARRAK
ACABE	633,20 €	316,60 €	316,60 €	
ADEMG	411,58 €	205,79 €	205,79 €	
AECC	472,00 €	236,00 €	236,00 €	
AGIFES	728,18 €	364,09 €	364,09 €	
AGIPASE	1.139,76 €	569,88 €	569,88 €	
ALCER	900,00 €	450,00 €	450,00 €	
ATECE	728,18 €	364,09 €	364,09 €	
ATZEGI	1.234,74 €	617,37 €	617,37 €	
BEGISARE	854,82 €	427,41 €	427,41 €	
BIKARTE	949,80 €	474,90 €	474,90 €	
GIP. ITXAROPEN TEL.	918,14 €	459,07 €	459,07 €	
IZAN FUNDAZIOA	823,16 €	411,58 €	411,58 €	
ORTZADAR	696,52 €	348,26 €	348,26 €	
PAUSOKA ELKARTEA	1.108,10 €	554,05 €	554,05 €	
<b>Guztira</b>	<b>11.598,18 €</b>	<b>5.799,09 €</b>	<b>5.799,09 €</b>	

### 3.- Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2015ean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2015-02-03)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**



Usurbilgo Udala



**Lehenengoa:** Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

TALDEAREN IZENA	BIDERATU BEHARREKOA
ACABE	316,60 €
ADEMGI	205,79 €
AECC	236,00 €
AGIFES	364,09 €
AGIPASE	569,88 €
ALCER	450,00 €
ATECE	364,09 €
ATZEGI	617,37 €
BEGISARE	427,41 €
BIKARTE	474,90 €
GIP. ITXAROPEN TEL.	459,07 €
IZAN FUNDAZIOA	411,58 €
ORTZADAR	348,26 €
PAUSOKA ELKARTEA	554,05 €
<b>Guztira</b>	<b>5.799,09 €</b>

**Bigarrena :** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Diru-laguntza irekiak: Elkarteen asmoak: 1.8000.481.231.03.02.2015 (**A 10/2015**)

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

**Laugarrena:** Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

## **8.- 2015EKO NEKAZARITZA ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA ONARTZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.06/2015-0036

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urtarrilaren 27ko bilkuran, besteren artean 2015ean nekazaritza arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala



Oinarrien testu osoa, 2015eko otsailaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 21. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitun laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Aurkeztutako eskaera aztertu ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21n, besteak beste zera erabaki zuen:

- 2015ean nekazaritza arloko egitasmoak ondoko diru-laguntzak onartzea:

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Jexux Agirresarobe Arzallus	Oilotegi ekologikoko kabien berrikuntza neurri sanitarioak hobetzeko	2.000,00 €	1.000,00 €
Garikoitz Basurto Korta	Artzaintzan hasteko 45 ardiren kanpaina egin eta bere izenera pasatzeko diru laguntza eskaera	100,00 €	50,00 €
Jose Maria Zaldua Urdampilleta	Sutearen ondorioz traktore berria erosteko eskaera	35.000,00 €	753,55 €
Koldo Huegun Zapirain	Abereak erosteko	2.700,00 €	540,00 €
	Salmenta zuzena sustatzeko	500,00 €	100,00 €
Jose Antonio Segurola	Nekazaritza bultzatzeko egin nahi den betelanaren proiektua egiteko dirulaguntza	2.500,00 €	500,00 €
Arkaitz Portularrume Unanue	Goldea erosteko	3.617,90 €	1.808,95 €
Igor Matxain Arrozpide	Barazerako bidea egiteko	13.855,00 €	753,55 €
Mari Kruz Otermin (Galdagorri)	Remolke txikia	2.500,00 €	753,55 €
	Fardo enpakadora	3.500,00 €	
	Traktorea erostea	14.000,00 €	
	Traktoreko desbrozadora	5.000,00 €	
M <sup>a</sup> Dolores Goenaga (Igartazabal)	Artzantzarako itxiturak berritzeko materiala	390,00 €	195,00 €
	Ardiak erosi, a r taldea berritzeko (35)	2.870,00 €	1.435,00 €
Alkartasuna kooperatiba	Sagasti eta kiwien kimaketa eta zainketa ikastaroa	1.693,60 €	508,08 €
	Nekazaritza biodinamiko ikastaroa	313,60 €	94,08 €
	Etxea sagardoa eta zukua ekoizteko ikastaroa	727,20 €	218,16 €
	Oinarrizko erlezaintza ikastaroa	213,60 €	64,08 €
	Etxean sagardoa eta sagar zukua promozionatzeko materiala eskuratzea	6.130,00 €	1.226,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>97.610,90 €</b>	<b>10.000,00 €</b>





Usurbilgo Udala



- Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.172.00.01 aurrekontu partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75
Jexux Agirresarobe Arzallus	Oiloteği ekologikoko kabien berrikuntza neurri sanitarioak hobetzeko	750,00 €
Garikoitz Basurto Korta	Artzaintzan hasteko 45 ardiren kanpaina egin eta bere izenera pasatzeko diru laguntza eskaera	37,50 €
Jose Maria Zaldua Urdampilleta	Sutearen ondorioz traktore berria erosteko eskaera	565,16 €
Koldo Huegun Zapirain	Abereak erosteko	405,00 €
	Salmenta zuzena sustatzeko	75,00 €
Jose Antonio Segurola	Nekazaritza bultzatzeko egin nahi den betelanaren proiektua egiteko dirulaguntza	375,00 €
Arkaitz Portularrume Unanue	Goldea erosteko	1.356,72 €
Igor Matxain Arrozpide	Barazerako bidea egiteko	565,16 €
Mari Kruz Otermin (Galdagorri)	Remolke txikia; fardo enpakadora; traktorea erostea; traktoreko desbrozadora	565,16 €
M <sup>a</sup> Dolores Goenaga (Igartzabal)	Artzantzarako itxiturak berritzeko materiala	146,25 €
	Ardiak erosi, a r taldea berritzeko (35)	1.076,25 €
Alkartasuna kooperatiba	Sagasti eta kiwien kimaketa eta zainketa ikastaroa	381,06 €
	Nekazaritza biodinamiko ikastaroa	70,56 €
	Etxea sagardoa eta zukua ekoizteko ikastaroa	163,62 €
	Oinarrizko erlezaintza ikastaroa	48,06 €
	Etxean sagardoa eta sagar zukua promozionatzeko materiala eskuratzea	919,50 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>7.500,00 €</b>

## UKO EGITEA

2015eko ekainaren 24an, 2008 sarrera zenbakia daraman idatziaren bitartez, IGOR MATXAIN ARROZPIDE jaunak UKO egin zion aitortutako diru-laguntzari.

Hau ikusirik, Alkatetzak, 2015eko uztailaren 16an, 2015/0654 dekretuaren bitartez, IGOR MATXAIN ARROZPIDE jaunaren alde onartutako diru-laguntza bertan behera uztea eta aurreratutako diru-laguntzaren %75a (565,16 €) bueltatzeko agintzea erabaki zuen.

Udal kontuhartzaitzak ziurtatu duenez, IGOR MATXAIN ARROZPIDE jaunak 2015eko uztailaren 16an itzuli zuen aurreratutako diru-laguntzaren %75a: 565,16 €



Usurbilgo Udala



## DIRU-LAGUNTZEN ZURITZEA

Oinarrietako 11. artikuluan (*Diru-laguntza justifikatzea*) ezarritakoaren arabera, diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2016ko urtarrilaren 15a zen.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten diren dokumentazioa aurkeztu dute:

Taldea	Zuriketa data	Diru-laguntzaren zuritzea
Jexux Agirresarobe Arzallus	2016-01-14 / 47	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Garikoitz Basurto Korta	2016-01-14 / 87	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Jose Maria Zaldua Urdampilleta	2015-09-16 / 2814	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Koldo Huegun Zapirain	-----	Diru-laguntzari <b>UKO</b> egin dio
Jose Antonio Segurola	2016-01-15 / 107	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Arkaitz Portularume Unanue	2016-01-15 / 111	2.400 €-ko gastua zuritu du. Diruzlagundutako proportzioa %50-koa izan da, eta beraz eman beharreko dirulaguntza guztira 1.200 €-takoa litzateke. Lehen ordainketan 1.356,72 € eman zitzaizkiola kontutan hartuta, <b>156,72 € itzuli beharko litzioke Udalari.</b>
Mari Kruz Otermin (Galdagorri)	2016-01-14 / 86	2.202,20 €-tako gastua zuritu du. Enfardadora erosketa zuritzeko eginiko 1.694 €-tako zuriketa ez da onartzen. Beraz, emandako dirulaguntza proportzioa mantenduz (%3,01). Guztizko diru-laguntza 66,28 €-ko diru-laguntza litzateke. Lehen ordainketan 565,16 € eman zitzaizkiola kontutan hartuta, <b>498,88 € itzuli beharko litzioke Udalari.</b>
M <sup>a</sup> Dolores Goenaga (Igartazabal)	2016-01-07 / 24	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Alkartasuna kooperatiba	2016-01-15 / 129	Ekintza desberdinetan aurkeztutako zuriketa gastu guztiak kontutan izanik, diru-laguntza egindako gastuetara egokituz, diru-laguntza osatzeko ordaindu beharreko % 25a 32,76 €-koa da

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2016ko otsailaren 4an emandako txostenean zera proposatu du:

Taldea	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	Diru-laguntzaren %75	ZURITZEA
Jexux Agirresarobe Arzallus	2.000,00 €	1.000,00 €	750,00 €	Diru-laguntzaren % 25a (250,00 €) ordainduko zaio
Garikoitz Basurto Korta	100,00 €	50,00 €	37,50 €	Diru-laguntzaren % 25a (12,50 €) ordainduko zaio
Jose Maria Zaldua Urdampilleta	35.000,00 €	753,55 €	565,16 €	Diru-laguntzaren % 25a (188,39 €) ordainduko zaio
Koldo Huegun Zapirain	2.700,00 €	540,00 €	405,00 €	Diru-laguntzaren % 75a (405,00 €) bueltatzea aginduko zaio
	500,00 €	100,00 €	75,00 €	Diru-laguntzaren % 75a (75,00 €) bueltatzea aginduko zaio
Jose Antonio Segurola	2.500,00 €	500,00 €	375,00 €	Diru-laguntzaren % 25a (125,00 €) ordainduko zaio



Usurbilgo Udala



Arkaitz Portularrume Unanue	3.617,90 €	1.808,95 €	1.356,72 €	Diru-laguntza egokitu ondoren, 156,20 € itzultzeko aginduko zaio
Mari Kruz Otermin (Galdagorri)	2.500,00 €	753,55 €	565,16 €	Diru-laguntza egokitu ondoren, 498,88 € itzultzeko aginduko zaio
	3.500,00 €			
	14.000,00 €			
	5.000,00 €			
M <sup>a</sup> Dolores Goenaga (Igartzazabal)	390,00 €	195,00 €	146,25 €	Diru-laguntzaren % 25a (48,75 €) ordainduko zaio
	2.870,00 €	1.435,00 €	1.076,25 €	Diru-laguntzaren % 25a (358,75 €) ordainduko zaio
Alkartasuna kooperatiba	1.693,60 €	508,08 €	381,06 €	Diru-laguntza egokitu ondoren, diru-laguntzaren % 25a (32,76 €) ordainduko zaio
	313,60 €	94,08 €	70,56 €	
	727,20 €	218,16 €	163,62 €	
	213,60 €	64,08 €	48,06 €	
	6.130,00 €	1.226,00 €	919,50 €	
<b>GUZTIRA</b>	<b>97.610,90 €</b>	<b>10.000,00 €</b>	<b>7.500,00 €</b>	

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** 2015ean nekazaritza arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarrietako xedapenak ez direnez bete, jarraian zerrendatutako onuradunei aitortutako diru-laguntza ukatzea eta Udalak aurreratutako diru-laguntzen % 75a bueltatzeko agintzea:

Taldea	Babestutako aurrekontua	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	BUELTATU BEHARREKO DIRUA
Koldo Huegun Zapirain	Abereak erosteko	2.700,00 €	540,00 €	<b>405,00 €</b>
	Salmenta zuzena sustatzeko	500,00 €	100,00 €	<b>75,00 €</b>

Itzuli beharreko dirua, Kutxabankeko ES09 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “Diru-laguntza itzultzea” jarriaz kontzeptuan.

**BIGARRENA:** 2015ean nekazaritza arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarrietako xedapenak kontutan izanik, aitortutako diru-laguntza egindako gastuen arabera egokitu ondoren, jarraian zerrendatutako onuradunei, aurreratutakoatik zehaztutako dirua bueltatzeko agintzea:



Usurbilgo Udala



Taldea	Babestutako aurrekontua	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	BUELTATU BEHARREKO DIRUA
Arkaitz Portularrume Unanue	Goldea erosteko	3.617,90 €	1.808,95 €	156,20 €
Mari Kruz Otermin (Galdagorri)	Remolke txikia	2.500,00 €	753,55 €	498,88 €
	Fardo enpakadora	3.500,00 €		
	Traktorea erostea	14.000,00 €		
	Traktoreko desbrozadora	5.000,00 €		

Itzuli beharreko dirua, Kutxabankeko ES09 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “Diru-laguntza itzultzea” jarriaz kontzeptuan.

**HIRUGARRENA:** Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 25a ordaintzeko agintzea Kontuhartzailtzari, 1.6100.480.172.00.01 aurrekontu partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %25
Jexux Agirresarobe Arzallus	Oilotegi ekologikoko kabien berrikuntza neurri sanitarioak hobetzeko	250,00 €
Garikoitz Basurto Korta	Artzaintzan hasteko 45 ardiren kanpaina egin eta bere izenera pasatzeko diru laguntza eskaera	12,50 €
Jose Maria Zaldua Urdampilleta	Sutearen ondorioz traktore berria erosteko eskaera	188,39 €
Jose Antonio Segurola	Nekazaritza bultzatzeko egin nahi den betelanaren proiektua egiteko dirulaguntza	125,00 €
M <sup>a</sup> Dolores Goenaga (Igartzazabal)	Artzantzarako itxiturak berritzeko materiala	48,75 €
	Ardiak erosi, a r taldea berritzeko (35)	358,75 €
Alkartasuna kooperatiba	Sagasti eta kiwien kimaketa eta zainketa ikastaroa	32,76 €
	Nekazaritza biodinamiko ikastaroa	
	Etxea sagardoa eta zukua ekoizteko ikastaroa	
	Oinarrizko erlezaintza ikastaroa	
	Etxean sagardoa eta sagar zukua promozionatzeko materiala eskuratzea	
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.016,15 €</b>

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**9.- 2015EKO INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA ONARTZEA.**



Usurbilgo Udala



Esp. Zenbakia: HZ.06/2015-0035

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urtarrilaren 27ko bilkuran, besteren artean 2015ean ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2015eko otsailaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 21. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitau laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Aurkeztutako eskaera aztertu ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21n, besteak beste zera erabaki zuen:

- 2015ean ingurumen arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak onartzea:

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Koldo Huegun Zapirain	Oilaskotegiko berogailu sistema propano gasaren ordeztu, egurra erabiltzen duen sistemagatik aldatzea	2.000,00 €	2.000,00 €
Zero Zabor ingurumen babeserako elkarteak	Zaborraren jendartetik baliabideen jendartera kanpaina	1.827,10 €	1.735,75 €
Joseba Pellejero	Energia berriztagarriak soilik eskeintzen duen konpainiarekin argindarra kontratatzea	100,00 €	100,00 €
Alkartasuna kooperatiba	Plastikozko poltsen ordezkapena	750,00 €	750,00 €
Jose Antonio Errasti	Baserriko argiteria Led-ak jartzea	1.500,00 €	1.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>6.177,10 €</b>	<b>6.085,75 €</b>

- Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.172.00.01 aurrekontu partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75
Koldo Huegun Zapirain	Oilaskotegiko berogailu sistema propano gasaren ordeztu, egurra erabiltzen duen sistema batengatik aldatzea	1.500,00 €
Zero Zabor ingurumen babeserako elkarteak	Zaborraren jendartetik baliabideen jendartera kanpaina	1.301,81 €
Joseba Pellejero	Energia berriztagarriak soilik eskeintzen duen konpainiarekin argindarra kontratatzea	75,00 €
Alkartasuna kooperatiba	Plastikozko poltsen ordezkapena	562,50 €
Jose Antonio Errasti	Baserriko argiteria Led-ak jartzea	1.125,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>4.564,31 €</b>



Usurbilgo Udala



## DIRU-LAGUNTZEN ZURITZEA

Oinarrietako 11. artikuluan (*Diru-laguntza justifikatzea*) ezarritakoaren arabera, diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2016ko urtarrilaren 15a zen.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten diren dokumentazioa aurkeztu dute:

Taldea	Zuriketa data	Diru-laguntzaren zuritzea
Koldo Huegun Zapirain	2016-01-14 / 95	Diru-laguntzari <b>UKO</b> egin dio
Zero Zabor ingurumen babeserako elkarte	2016-01-14 / 97	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Joseba Pellejero	-----	Diru-laguntza <b>EZ</b> du zuritu
Alkartasuna kooperatiba	2016-01-15 / 129	Diru-laguntza <b>EGOKI</b> zuritu du
Jose Antonio Errasti	-----	Diru-laguntza <b>EZ</b> du zuritu

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2016ko otsailaren 4an emandako txostenean zera proposatu du:

Taldea	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	Diru-laguntzaren %75	ZURITZEA
Koldo Huegun Zapirain	2.000,00 €	2.000,00 €	1.500,00 €	Diru-laguntzaren % 75a (1.500 €) bueltatzea aginduko zaio
Zero Zabor ingurumen babeserako elkarte	1.827,10 €	1.735,75 €	1.301,81 €	Diru-laguntzaren % 25a (433,94 €) ordainduko zaio
Joseba Pellejero	100,00 €	100,00 €	75,00 €	Diru-laguntzaren % 75a (75 €) bueltatzea aginduko zaio
Alkartasuna kooperatiba	750,00 €	750,00 €	562,50 €	Diru-laguntzaren % 25a (187,50 €) ordainduko zaio
Jose Antonio Errasti	1.500,00 €	1.500,00 €	1.125,00 €	Diru-laguntzaren % 75a (1.500 €) bueltatzea aginduko zaio
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.177,10 €</b>	<b>6.085,75 €</b>	<b>4.564,31 €</b>	

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** 2015ean ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarrietako xedapenak ez direnez bete, jarraian zerrendatutako onuradunei aitortutako diru-laguntza ukatzea eta Udalak aurreratutako diru-laguntzen % 75a bueltatzeko agintzea:

Taldea	Babestutako aurrekontua	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	<b>BUELTATU BEHARREKO DIRUA</b>
--------	-------------------------	-------------------------	---------------	---------------------------------



Usurbilgo Udala



Koldo Huegun Zapirain	Oilaskotegiko berogailu sistema propano gasaren ordeztu, egurra erabiltzen duen sistemagatik aldatzea	2.000,00 €	2.000,00 €	<b>1.500,00 €</b>
Joseba Pellejero	Energia berriztagarriak soilik eskeintzen duen konpainiarekin argindarra kontratatzea	100,00 €	100,00 €	<b>75,00 €</b>
Jose Antonio Errasti	Baserriko argiteria Led-ak jartzea	1.500,00 €	1.500,00 €	<b>1.125,00 €</b>

Itzuli beharreko dirua, Kutxabankeko ES09 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “Diru-laguntza itzultzea” jarriaz kontzeptuan.

**BIGARRENA:** Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 25a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.172.00.01 aurrekontu partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %25
Zero Zabor ingurumen babeserako elkarteak	Zaborraren jendartetik baliabideen jendartera kanpaina	433,94 €
Alkartasuna kooperatiba	Plastikozko poltsen ordezkapena	187,50 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>621,44 €</b>

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaitzari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**